



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko otsailaren 14a

19. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, COVID-19aren pandemiaren bilakaera aztertzeko aginte-koadroen datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, bertako inongo enpresatan jomuga ez duten zama-ibilgailuak Garraioaren Hirira sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen fakturazioaz informatzeko esku-orriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, administrazio-egoera irregularrean egon eta musikak eta botikak jaso dituzten pertsonen buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, COVID-19aren berrinfekzio kasuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, espetxe-osasungintzan Nafarroako Gobernuak egindako gastuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Valle del Roncal Ezintasunaren Arreta Integralerako Zentroa berritzeko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, El Vergel Egoitza berritzeko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte Egoitzaren berritzeko lanei eta finantzaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Irunberriko San Isidro Egoitza berritzeko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Santo Domingo Egoitza berritzeko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Baztango Udalak antolatutako “Berdintasuna eta genero ikuspegia toki entitateen politika publikoetan. Ikastaro praktikoa” izeneko ikastaroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Beola auzoko lotunerako konponbide teknikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Vianako Andre Maria eliza zaharberritzeko obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, enplegu inklusiboko ekimenak aurkezteko eta gauzatzeko epeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko enplegu inklusiboko ekintzaren eskari- eta gastu-aurreikuspenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, enplegu-zentro berezientzako laguntzen zenbatekoari eta irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, enplegu-zentro berezientzako laguntzak ebazteko eta ordaintzeko datei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, enplegu-zentro berezientzako laguntzetarako partiden aurrekontu-aldaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, “COVID-19a. Enplegu-zentro berezientzako laguntzak” partidarako aurreikusitako jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, haur eta gazteen osasun mentala artatzeko psikiatren agendak berrantolatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Atzeritartasun arloko Arreta eta Aholkularitza guneetan egin daitezkeen zuzemenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Atzeritartasun arloko Arreta eta Aholkularitza Zerbitzuaren ordutegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Atzeritartasun arloko Arreta eta Aholkularitza guneetako itxarote-zerrendei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Atzeritartasun arloko Arreta eta Aholkularitza guneetako baliabide materialei eta giza baliabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Atzeritartasun arloko Arreta eta Aholkularitza guneetan batez beste itxaron beharreko denborari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Lekarozko “Baztan” Gazteen Aterpetxeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, garraio-txartel bateratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualea Lurralde-lankidetzako Europako Taldearen ekimenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, COVID-19aren pandemiaren bilakaera aztertzeke aginte-koadroen datuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, COVID-19aren pandemiaren bilakaera aztertzeke aginte-koadroen datuei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 14ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21/PES-00309 errepikatua), honako hau jakin nahi baitu: “datuak eta datuen iragazkiak, Osasun Departamentuak pandemian zehar monitorizatu dituenak monitorizazio horretarako sortutako edozein aginte-koadroren bitartez; eta informazio hori, oso zehatza, lehenbailehen igor dakiola parlamentari honi”. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Uste dugu iragan urriaren 29ko erantzunean jada azaldu zirela errepikapen honetan aipatutako gaiak. Osasun Departamentuko zuzendaritza taldeak, gai honetan eta beste batzuetan dituen kudeaketa-eginkizunetan diharduela, une bakoitzean egokitzat jotzen duen informazioa biltzen eta erabiltzen du erabakiak hartzeko eta horien segimendua egiteko hainbat parametrori buruz, askotariko maiztasun eta formulekin, pandemia aldakor eta konplexu honek sortzen dituen premien arabera; nolana ere, parametro eta adierazle horiek ikus daitezke eskatzaileari hainbat bidetatik eta hileroko informazio-eskaerei erantzunez jada helarazi zaion dokumentazio formal mardulean. Aurreko erantzunean adierazi bezala,

informazio hori sakontzen eta osatzen saiatu gara iraileko eta urriko emanaldietan. Gogorarazten diogu pandemiaren segimenduari eta monitorizazioari buruzko informazio multzo ederra eskura dezakeela Nafarroako Gobernuaren eta Osasun Ministerioaren webguneetan.

Zehazki, hileroko informazioari dagokionez, hau da hileroko igorriko zaion ereduazko dokumentazioa, jada jasorik dagoena, kasuan kasuko epealdian, 849. eta 924. informazio-eskaeretan:

- Udalerrietako adierazleak. Horietan jasotzen dira, herriz herri, 100.000 biztanleko 14 eguneko eta 7 eguneko intzidentziaren parametroak, joera epidemiologikoa erakusten duen ratioa; 100.000 biztanleko 14 eguneko eta 7 eguneko intzidentzia 64 urtetik gorakoengan, biztanle talde horren ratioa; lehen proba diagnostikoetako prebalentzia; eta kasu ezagunaren 7 egunetako kontaktuen ehunekoak.

- Txosten epidemiologikoa. Hor biltzen dira Nafarroako COVID-19aren diagnostikoak, ospitaleratzeak (bai ZIUkoak, bai ospitaleratze arruntak) eta heriotzak astero. Halaber, joera adierazten da, aurreko asteetako datuekin alderatuta. Detektatutako kasuak ere biltzen dira txostenean, xehakatuta, adina, birusaren aldaera eta kutsatze eremua (etxea, eskola, lantokia, zentro soziosanitarioa, soziala etab.) kontuan harturik; bai eta txertatze kanpainaren egoera ere: lortutako txerto-estaldurak (dosi bat eta pauta osoa), txertoaren eraginkortasuna (dosi bat eta pauta osoa) eta txertaketak Nafarroan birusari eusteko izandako eragina, infekzio sintomatikoen, ospitaleratzeen, ZIUko ospitaleratzeen eta heriotzen prebentzioari buruzko zenbatespenekin. Europako gainerako herrialde eta eskualdeetako egoera epidemiologikoarekiko konparazioa jaso da dokumentazioan, eta NOPLOI Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak Nafarroako Foru Komunitateko COVID-19

jokalekuari buruz egin duen azterlana, iruzkin, konklusio eta gomendioekin.

- Nafarroako COVID-19aren segimenduaren adierazleak. Intzidentzia metatu orokorraren bilakaera (100.000 biztanleko intzidentzia 7 egunetan eta 14 egunetan bai populazio orokorrean bai 65 urtetik gorakoengan, proba positiboaren ehunekoak, intzidentzia udalerriz udalerriz, etab.); diagnostikorearen eta trazabilitatearen adierazleak (detekzio goiztiarra, kasuaren jatorrizko lekuaren arabera, sintomak izatearen eta kasu ezagunarekiko kontaktuaren arabera, agerraldien bilakaera, agerraldi berriak eta horiei lotutako kasuak, agerraldiei lotutako kasuen kopurua kutsatze-eremuaren arabera, etab.); eta larritasunaren adierazleak (ospitaleen egoera: ospitaleratze tasak, akutuetan eta ZIUan ospitaleratuen proportzioa diagnostikodaren arabera, oheen okupazioa, hilgarritasuna etab.); adierazleak adin taldeen arabera (7 egunetan eta 14 egunetan metatutako intzidentziak, ospitaleratzeak); alerta mailaren sailkapenaren laburpena probintziak eta udalerrietako intzidentzia taulak (10.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerririk).

- COVID-19aren segimenduaren oinarrizko adierazleak. Honako parametro hauek biltzen dituzte, besteak beste: transmisio mailaren eta laguntza-zerbitzuen erabileraren ebaluazioa; 7 egunetan eta 14 egunetan 100.000 biztanleko

izandako intzidentzia, bai populazio orokorrean bai 65 urtetik gorakoengan; proba positiboaren ehunekoak; trazabilitatea duten kasuak; akutuentzako oheen okupazioa COVID dela-eta, eta ZIUko oheen okupazioa COVID dela-eta. Txostenean Estatuko egoera orokorraren analisi zehatza egiten da, eta adierazle bakoitzeko atalaseak ezartzen dira, eskualde bakoitzean arriskua txikia, ertaina, handia edo oso handia den zehazteko. Bestalde, azaltzen da nola adierazle horien arabera alerta maila batzuk proposatzen diren SARS-CoV-2aren transmisio arriskuaren arabera jarduketak egiteko, eta lurralde bakoitzeko egoeraren eta testuinguruaren arabera alda daitezkeen.

- Pandemiaren oinarrizko parametroen eguneroko datuak. Proba positiboak, egindako proben guztizko kopurua, positibotasun tasa, egun bakoitzean jarritako txertoak, Nafarroan guztira jarritako txertoak, txertoen pautak osoa duten pertsonak, ospitaleetako okupazioa (ospitaleratze arruntak eta ZIUko ospitaleratzeak, guztira), ospitaleratze berriak (solairuan eta ZIUan) eta heriotzak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, bertako inongo enpresatan jomuga ez duten zama-ibilgailuak Garraioaren Hirira sartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Pérez Arregui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, bertako inongo enpresatan jomuga ez duten zama-ibilgailuak Garraioaren Hirira sartzeari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Pérez Arregui jaunak

idatziz erantzuteko 10-21/PES-00329 galdera egin du. Hori dela eta, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dio:

Eskatzaileak dioenez, “jakina da Garraioaren Hirira zama-ibilgailuak sartzeko direla, bertako inongo enpresatan jomuga ez dutenak”. Alabaina, 10-21/PEI-00773, 10-21/PEI-00947 eta 10-21/PEI-00948 informazio-eskaeren erantzunetan adierazi zen bezala, inongo enpresa publikok ez du segurtasun eta zaintza zerbitzurik egiten Garraioaren Hirian.

Beraz, EZ da jakin galderan aipatzen diren gertaeren berririk, eta kontsulta hori inori egitekoan, 1. eta 2. faseetako jabeen erkidegoari

(V71320824) eta 3. faseko jabeen erkidegoari (H71178628) egin beharko zaie.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen fakturazioaz informatzeko esku-orriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen fakturazioaz informatzeko esku-orriei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera batzuk egin ditu, idatziz erantzutekoak (10-21/PES-00330).

Hona hemen Nafarroako Gobernuak Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Parlamentari jaunaren galderan eskatzen diren datuak Legebiltzarreko Erregelamenduaren 14. artikuluko erregelamenduzko prozedurari jarraituz eskatu behar dira.

Parlamentari jaunak jada jaso du jaso beharreko informazioa, 10-21/PEI-00971 galderaren erantzunean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, administrazio-egoera irregularrean egon eta musikak eta botikak jaso dituzten pertsonen buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, administrazio-egoera irregularrean egon eta musikak eta botikak jaso dituzten pertsonen buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera batzuk egin ditu, idatziz erantzutekoak (10-21/PES-00331).

Hona hemen Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Parlamentari jaunaren galderan eskatzen diren datuak Legebiltzarreko Erregelamenduaren 14. artikuluko erregelamenduzko prozedurari jarraituz eskatu behar dira.

Parlamentari jaunak jada jaso du jaso beharreko informazioa, 10-21/PEI-00970 galderaren erantzunean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, COVID-19aren berrinfekzio kasuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin COVID-19aren berrinfekzio kasuei buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko 10-21/ PES-00332 galdera aurkeztu du, zeinaren bidez informazio hau eskatzen baitu: "Osasun Departamentuaren erregistro eta datu-iturrien arabera,

posible al da jakitea Nafarroan zenbat pertsona berrinfektatu diren COVID-19agatik?

Hala bada, zenbat pertsona berrinfektatu dira?

Osasun Departamentuaren erregistro eta datu-iturrien arabera, posible al da jakitea COVID-19agatik berrinfektaturiko pertsona horietatik zenbat zeuden txertatuta eta zer txerto mota jaso zuten?

Hala bada, zenbatek zeukaten txertaketaren pautak osoa? Eta txerto mota bakoitzeko, zenbatek? Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Osasun Departamentuaren erregistro eta datu-iturrien arabera, posible al da jakitea Nafarroan zenbat pertsona berrinfektatu diren COVID-19agatik?

Koinfekzioak monitorizatzea oso konplexua da, askotariko egoerak aztertu behar direlako, eta berriz ebaluatu bi gertakari. Kontuan hartu behar dira bi gertakarietan egindako analisien emaitzak. Bilakaera klinikoek ere kasuaren amaierako sailkapena baldintzatzen ahal dute. Gertakari bako-

tzaren aurreko eta ondoko emaitza serologikoak ere baliagarriak dira. Arrazoi horrengatik, aurreko informazio hori guztia eskura dagoenean egin behar da koinfekzioen monitorizazioa, eta gertakari berria susmatzen hasi zen unearekiko atzera-pena eragiten du horrek.

Hala bada, zenbat pertsona berrinfektatu dira?

Orain arte balizko 580 koinfekzio detektatu dira Nafarroan, baina balizko beste kasu batzuk ere ebaluatzen ari dira.

Osasun Departamentuaren erregistro eta datu-iturrien arabera, posible al da jakitea COVID-19agatik berrinfektaturiko pertsona horietatik zenbat zeuden txertatuta eta zer txerto mota jaso zuten?

111 pertsona zeuden txertatuta: 87 Pfizerrekin, 13 AstraZenecarekin eta 11 Modernarekin

Hala bada, zenbatek zeukaten txertaketaren pautu osoa? Eta txerto mota bakoitzeko, zenbatek?

31 pertsonak txertoaren bi dosi zeukaten, eta gainerakoek dosi bakarra zeukaten berrinfekzioaren uean.

Bi dosi zeukatenak honela banatzen dira: 29 Pfizerrekin zeuden txertatuta, bat AstraZenecarekin eta bat Modernarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 17an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, espetxe-osasungintzan Nafarroako Gobernuak egindako gastuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, espetxe-osasungintzan Nafarroako Gobernuak egindako gastuari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00333) informazio hau eskatzeko: "2020an zenbateko gastua egin du Nafarroako Gobernuak espetxe-osasungintzan?". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

1.- 2020an zenbateko gastua egin du Nafarroako Gobernuak espetxe-osasungintzan? Erantsi gastu horren xehakapena.

Nafarroako Gobernuak 2020an ez zuen espetxe-osasungintzan inolako gasturik egin zuzenean, arlo horretako kostua artean ez zegokiolako Foru Gobernuari, Estatuaren eskumena izateagatik. Estatuako Administrazioak hartzen zituen bere gain eskualdatuak izan arte Espetxe Erakundearen plantillan egondako langileen gastuak.

2.- 2021erako zenbateko itxiera-gastua aurreikusuten da? Erantsi itxiera-gastuaren xehakapena.

Oinarrizko Osasun Laguntzan, 2021erako guttuzko gastuaren zenbatespena 265.155 euro da; 203.965 euro ordainsarietarako eta 61.190 euro Gizarte Segurantzarako. Kudeaketa Ekonomikoaren Zerbitzuan, berriz, hau da aurreikuspena; 2.550 euro inbertsioetan eta 10.000 euro gastu arruntetan. Bestalde, hona zenbatespena Farmazia Zuzendariordetzan: 36.685 euro ordainsarrietan (farmazialari bat eta administrari bat) eta 80.114 euroko partida sendagaietan.

3.- 2022rako zenbateko aurrekontua aurreikusuten da?

Oinarrizko Osasun Laguntzan, 2022rako aurrekontua 631.245 eurokoa da; horietatik 485.573 euro ordainsarietarako lirateke eta 145.672 euro Gizarte Segurantzari ordaintzeko. Aurtengo gastuaren aurreikuspena, berriz, 3.000 eurokoa da

inbertsioetan eta 20.000 eurokoa gastu arruntetan. Askotariko beste gastu batzuk gehituko lirateke, hala nola informatika tresnak edo erabilera anitzeko tresnak; horiek oraindik zenbatetsi gabe daude. Farmazia Zuzendariordeztan, 104.319 euroko gastua zenbatetsi da ordainsarietarako eta 198.000 eurokoa sendagaiak erosteko.

4.- Nafarroako Gobernuak zer prestazio berri sartuko ditu legegintzaldi honetan? Erantsi kronograma.

Nafarroako Gobernua une hauetan aztertzen eta ebaluatzen ari da zer prestazio erants litezke-

en edo nola indartu litezkeen lehendik daudenak, espetxeko osasun-zerbitzuen programa eta jarduketeki eta erakundeak tratamenduaren, erregimenaren eta segurtasunaren arloetan dituen eginkizunei dagokienez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Valle del Roncal Ezintasunaren Arreta Integralerako Zentroa berritzeko proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Valle del Roncal Ezintasunaren Arreta Integralerako Zentroa berritzeko proiektuari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du Valle del Roncal Ezintasunaren Arreta Integralerako Zentroa (CAIDIS) egokitzeko proiektuari buruz (10-21/PES-00334). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

1. Zer egiteko asmoa du departamentuak egoitza horretan jarraitzeko aukerarik izanen ez luketen 34 pertsonekin?

Valle del Roncal CAIDIS zentroan gaur egun 73 erabiltzaile bizi dira. Tokien murrizketa honela egin da:

– 65 urtetik gorako 12 pertsona desgaitasuna duten pertsonentzako zahartze unitatera pasatu ziren. Iruñeko El Vergel adinekoentzako zentro propioan sortu da unitate hori. Lekualdaketa 2020ko maiatzean eta ekainean egin zen.

– 10 pertsona Las Hayas CAIDIS zentrorra pasatu ziren 2020ko ekainean. Hasiera batean egoitza-unitatea izateko sortutako unitate hori eguneko arreta behar duten pertsonak erabili izan dute urteetan. Gaur egun pertsona horiek Pilar Gogorcena eguneko zentro berrira joaten dira.

– 9 pertsonari eman zaie baja zentroan 2020ko martxoaz geroztik.

– Aurreikuspena da zentroan baja ematen zaien pertsonen tokiak ez okupatzea harik eta zentroan 70 toki izan arte.

2. Urtean zer aurrekontu- eta finantza-aurreikuspen darabil departamentuak lan horiek egiteko? Halakorik baldin bada, finantzaketaren aurreikuspen ekonomikoa eta egutegi-aurreikuspena jaso nahi ditugu.

Obra bi urtean egingen da. Enpresa adjudikazioduna Conslau SL da, eta adjudikazioaren zenbatekoa, 1.619.815,32 euro BEZik gabe eta 1.959.976,54 euro BEZa barne; 814.078,75 euro 2021. urterako dira eta 1.145.897,79 euro 2022. urterako (BEZa barne).

Obra 2021eko apirilaren 15ean hasi zen, zuinetaren akta sinatu zenean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, El Vergel Egoitza berritzeko proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin El Vergel Egoitza berritzeko proiektuari buruz Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du El Vergel egoitza egokitzeko proiektuari buruz (10-21/PES-00335). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Departamentuan bizikidetza-unitateen kokapenari eta banaketari buruzko hasierako planteamendua egin da, baina ez da zehaztu behin betiko proiektu batean.

Egun 159 plaza daude okupatuta, eta hasierako azterketa horretan ikusi da bost bat plaza kendu behar liratekeela, kopurua 154ra jaitsiz, behar diren espazioak kokatu ahal izateko. Bizikidetza-unitateen proiektua jaso eta behin betiko plaza kopurua jakiten dugunean aztertu egingen dugu gaur egun plaza bat okupatzen ari diren pertsonak nola artatu, zeren asmoa baita inor lekuz ez aldatzea, ahal bada.

Next Generation funtsen esparruko obrak dira. Obren aurreikuspena 2022. eta 2023. urteetarako egin da, eta funts horietan egindako aurrekontuak dira 330.000 euro 2022. urterako eta 672.600 euro 2023. urterako; azken urte horretan sartzen dira egoitzako aldageletako obrak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte Egoitzaren berritzeko lanei eta finantzaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte Egoitzaren berritzeko lanei eta finantzaketari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du (10-21/PES-00336) Eskubide Sozialetako Departamentuko kontseilariak eta PAGNAko zuzendari kudeatzaileak Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte egoitzara herriko udalak gonbidaturik egindako bisitari buruz eta egoitza berritzeko lanez eta horien finantzaketaz bisita horretan esandakoari buruz. Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Bisita horretatik Nafarroako Gobernuak zer ondorio atera du egoitza berritzeari dagokionez?

Bisitari agerian gelditu zen zaharberritze lan handiak egin behar direla egoitza 92/2020 Foru Dekretu berrira egokitu ahal izateko. Udalak

hasierako proiektua zertan den azaldu zuen. Egoitzaren egitura guztiz aldatuko du, batez ere egoitza azken aldiz handitu zenean egin ziren eraikitzen.

Lan horiek egiteko zer aurrekontu- eta finantzaketa-aurreikuspen aurkeztu du Udalak edo dauka departamentuak? Halakorik baldin bada, finantzaketaren aurreikuspen ekonomikoa eta egutegi-aurreikuspena jaso nahi ditugu.

Eskubide Sozialetako Departamentuak Udalari jakinarazi zion badaudela Europako funtsak egoitza-zentroak arreta eredu berrietara egokitzeko, 22. lerroaren barnean. Funts horietako batzuk Nafarroako Gobernuaren zentro publikoetako inbertsioak finantzatzeko dira, eta gainerako egoitza-zentroetako inbertsioetara 6,5 milioi pasatxo bideratuko dira. Diru kopuru hori dirulaguntzen deialdi bat eginda banatuko da, norgehiagoka bidez, eta Foru Komunitateko zentro guztiek parte hartu ahalko dute.

Aipatu bileran, Udalak adierazi zuen proiektua prestatzen ari zela eta, horregatik, ez zeukala behin betiko aurrekontu osoa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, Irunberriko San Isidro Egoitza berritzeko proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Irunberriko San Isidro Egoitza berritzeko proiektuari buruz Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin Irunberriko San Isidro egoitza egokitzeko proiektuari buruz (10-21/PES-00337). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozietako kontseilariak informatzeko duena:

1. Proiektu hori gauzatzearekin Departamentuak San Isidro egoitzan zenbat postuko murrizketa egitea aurreikusten du? Idatzitako aurreproiekturik ba al dago jadanik?

Oraindik ez dago idatzitako proiekturik.

2. Zenbat pertsonarentzat izanen dira egoitza horretako bizikidetz-unitateak?

Bizikidetz-unitate bakoitza osatuko duten pertsonen kopurua abenduaren 2ko 92/2020 Foru Dekretuaren arabera ezarriko da.

3. Postu kopurua murrizten bada, departamentuak nola artatuko ditu egoitza horretan posturik gabe geratuko diren pertsonak?

Esan bezala, oraindik ez dago zentroa zaharberritzeko behin betiko proiekturik.

4. Urteko aurrekontuari eta finantzaketari dagokienez, zer aurreikuspen darabil departamentuak? Halakorik baldin bada, finantzaketaren aurreikuspen ekonomikoa eta egutegi-aurreikuspena jaso nahi ditugu.

Next Generation funtsen esparruko obrak dira. Obren aurreikuspena 2022. eta 2023. urteetarako egin da, eta funts horietan egindako aurrekontuak dira 150.000 euro 2022. urterako eta 500.000 euro 2023. urterako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Eskubide Sozietako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, Santo Domingo Egoitza berritzeko proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Santo Domingo Egoitza berritzeko proiektuari buruz Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du Santo Domingo egoitza egokitzeko proiektuari buruz (10-21/PES-00338). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozietako kontseilariak informatzeko duena:

1. Zein da Eskubide Sozietako Departamentuak hartutako erabakia: Santo Domingo zahar-etxea berritzea, ala hura abandonatu eta Oncine-

da egoitzan zahar-etxe berria egitea? Idatzitako aurreproiekturik ba al dago jadanik?

Departamentua obra-exekuziorako proiektu baten lizitazioa prestatzen ari da, Oncineda aterpetxean (Iratxeko monasterioaren kalea 11, Lizarra) egokitze lanak egin eta Santo Domingo egoitza bertara aldatzeko.

2. Bigarren aukeraren alde egin bada, departamentuaren ustez aukera horrek urratu egiten al du Gizarte Eskubideen Ministerioarekin sinaturiko hitzarmenean jasotakoa? Erantzuna arrazoitzeko eskatzen da.

Ez; ezta gutxiago ere. Gizarte Eskubideen Ministerioarekin sinatutako hitzarmenean hau ezarri zen:

Santo Domingo egoitza egokitzea (100 plaza-ko egoitza, oztopo arkitektonikoak dituen). Plaza kopurua txikitu eta 15-16 laguneko bizikidetzak unitateak sortu nahi dira; pertsona gehienek bana-ko logela izanen dute. Unitate bakoitzak bere jangela, sukalde txikia eta egongelak izanen ditu. Dauden oztopo arkitektonikoak kenduko dira, eta airea girotzeko sistema aldatu eginen da energia-efizientzia hobetzeko.

Esku arteko proiektua ez da zehatz-mehatz hitzarmenean adierazitakoa. Izan ere, egoitza lekuz aldatuko da eta, hortaz, Santo Domingo egoitza Lizarrako Oncineda aterpetxean egokitzeko obrak izanen dira.

Lekualdatze horren arazoia da, besteak beste, proiektua errazago gauzatu ahalko dela arkitekturaren aldetik, Oncineda aterpetxea ez dagoelako hirigune historikoan eta ez delako eraikin babestua, Santo Domingo egoitza bezala. Horrexegatik, malgutasun handiagorako aukera ematen du espazioak definitzeko garaian, eta

egoitzako plaza gehiago sortu ahalko dira egungo egoitzaren eraikina zaharberrituta baino.

Aintzat hartu behar da, gainera, obrak beste eraikin batean eginez eragozpen gutxiago sortuko zaiela egoiliarrei: ez dute beren egoitzatik alde egin beharko aldi baterako, obrak egin bitartean. Santo Domingo egoitzaren egungo eraikina zaharberrituko balitz, egoitza osoa hustu beharko litzateke zaharberritze integrala egiteko. Egoiliarrak behin-behineko baliabide batean kokatu beharko liriateke bi urterako, gutxienez, horrek dakarren nahastearekin.

3. Urteko zer aurrekontu- eta finantzaketa-aurreikuspen darabil departamentuak aukera baterako eta besterako? Halakorik baldin bada, finantzaketaren aurreikuspen ekonomikoa eta egutegi-aurreikuspena jaso nahi ditugu.

Obrarako aurrekontu-aurreikuspena 6 milioi euro ingurukoa da, eta obra egiteko epea bi urte ingurukoa. Oraindik zehaztu gabe dago, ez baita idatzi behin betiko proiektua.

4. Aurreikuspenen arabera, zenbat egoiliar-postu izanen dira azkenean, aukera batean eta bestean?

Gaur egun Santo Domingo egoitzan 61 plaza daude okupatuta, eta proiektu berriarekin gutxienez ere 65 izan behar liriateke. Egungo Santo Domingo egoitza zaharberrituz gero, plaza kopurua txikitu eginen litzateke.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, Baztango Udalak antolatutako “Berdintasuna eta genero ikuspegia toki entitateen politika publikoetan. Ikastaro praktikoa” izeneko ikastaroari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Baztango Udalak antolatutako “Berdintasuna eta genero ikuspegia toki entitateen politika publikoetan. Ikastaro praktikoa” izeneko ikastaroari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00339); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez, Nafarroako Gobernuak 2021ean berritu egin zuten bien arteko lankidetzaren hitzarmena toki eremuan politika publikoak bultzatzeko helburuarekin. Hitzarmena 45.000 euroz hornituta dago; horietatik 35.000 euro Nafarroako Berdintasunerako Institutuak jarriko ditu, eta 10.000 euro Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak.

Hitzarmen horren bidez berdintasunaren arloko politiketan sakontzen ari da, toki entitateei laguntza teknikoak emanez emakumeen kontrako indarkeriaren prebentziorako eta berdintasunerako politikak susta ditzaten eta toki entitateetako teknikariak eta ordezkari publikoak trebatzeko ekintzak bultzatzen.

Hitzarmenaren xedea betetze aldera, NUKFK konpromisoa hartu zuen zenbait jarduketa egiteko, honako hau tartean:

2. Nafarroako toki entitateekin lankidetzan, toki entitate horietako teknikari eta politikarientzat berdintasunaren arloko prestakuntza ekintzak babestu eta bultzatzea. Prestakuntza-ibilbide honetako oinarritzko mailako ekintzak izanen dira: “Nafarroako toki entitateen politika publikoetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa txertatzeko eta genero-ikuspegia aplikatzeko prestakuntza-ibilbidea (2021-2023)”. Toki entitate-

etako berdintasunaren arloko teknikariek prestakuntza-ibilbiderako proposatu duten eredia hitzarmenaren eranskinean dago.

Egindako galderari dagokionez, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta berriaz kontratatutako laguntza teknikoak, iragan abuztuan, 2021eko prestakuntzak eskaini zizkieten Nafarroako toki entitate guztiei. Prestakuntza nahi zuten toki entitateek eskura zeuden hiru ikastarotatik bat aukeratu zuten, eta ikastaroaren hizkuntza ere bai (gaztelania edo euskara).

Baztango Udalaren kasuan, toki entitateak laguntza teknikoari telefonoz jakinarazi zion gai berari buruzko bi ikastaro egin nahi zituela publiko desberdinetarako, bata gaztelaniaz eta bestea euskaraz. Zehazki, 10 orduko ikastaroa zen, “Berdintasunari buruzko oinarritzko ikastaroa: eskuhartze publikoan genero-ikuspegia zergatik txertatu behar den ulertzeko gakoak”.

Gure Komunitatearen lurralde osoan ahalik eta eragin zabalena lortze aldera, toki entitate horri adierazi zitzaion urtean gehienez ere ikastaro bat aukeratu zitekeela herri bakoitzean.

Baztango Udalak 2021eko abuztuaren 27an jakinarazi zuen, posta elektronikoz, ikasleen fitxa erantsita, ikastaroa euskarazkoa eta politikariei zuzendua izanen zela.

Oinarritzko ikastaro hori bera gaztelaniaz eman da herri hauetan:

- Andosillako Udala
- Etxauriko Udala
- Lergako, Zareko, San Martin Unxeko eta Uxueko udalak
- Iruñeko Udala
- Tafallako Udala

Azaldutako testuinguru horretan, prestakuntza-jarduketa horien helburua ez da besterik berdintasunaren arloko erakunde-estrategiari bultzada ematen laguntzea baino, eta estrategia horiek eragin positiboa izan dezatela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan aurrera egiteko, toki entitateen bidez.

Halaber, garrantzitsua da azpimarratzea ezen hitzarmena eguneratuz eta berrituz sendotu egiten dela NABIren eta NUKFren artean emakume-

en eta gizonen arteko berdintasunerako politikak sustatzeko garatzen ari den elkarlana.

Hala ere, toki entitateen autonomiaren barneko eskumena da ikastaroa gaztelaniaz edo euskaraz eskainiko den erabakitzea, baldin eta sektoreko araudia betetzen bada, noski. Ez dagokio Nafarroako Gobernuari prestakuntza-ikastaroak ezarri eta baimentzea edo zein hizkuntzatan emanen diren erabakitzea; kasu honetan, lankidetzaren hitzarmenaren bidezko sustapena da haren egitekoa. Horrek ez du galarazten toki entitateek beren

borondatez bestelako prestakuntza ekintzak eskaintzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 7an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, Beola auzoko lotunerako konponbide teknikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Beola auzoko lotunerako konponbide teknikoari buruz Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00340), jakin nahi baitu Nafarroako Gobernuak zer konponbide tekniko emanen dion Beola auzoak N-121-A errepidearekin bat egiteko lotuneari

buruz Almandozko herriak eta Baztango Udalak azaldutako arazoari. Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak horretaz ematen dion informazioa: Almandozko herriak eta Baztango Udalak ez dute "Beola auzoa" dela-eta inongo eskaerarik aurkeztu.

Argitu behar da ezen, kontuan izanik udal katastroan eta Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sistemak dauden datuak, horietan ez dela ageri BEOLA izeneko parajerik Baztango udal-mugartean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, Vianako Andre Maria eliza zaharberritzeko obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Vianako Andre Maria eliza zaharberritzeko obrei buruz Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko 10-21//PES-00341 galdera egin du, jakin nahi baitu ea Nafarroako Gobernuak zer jarrera duen eta noraino inplikatu nahi duen Vianako Andre Maria eliza zaharberritzeko obrei dagokionez. Hau da Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Kultura eta Kirol Departamentuak legegintzaldian zehar Vianako Andre Maria elizaren egoerari buruzko informazioa jaso izan du Vianako Udalarengandik eta Iruña eta Tuterako Artzapezpikutzarengandik.

Eraikina Donejakue Bidean dago eta interes kulturalako ondasun izendatuta dago. Beraz, eza-gutu egin behar ditugu haren arazo egiturazkoak eta arkitektonikoak, bai eta haren egungo egoerak sor ditzakeen arriskuak ere. Hori guztia, zaharberritze eta mantentze lanen bidezko balizko esku-hartze bat baloratzeko, zeinak berekin ekarriko bailuke Kultur Eskubideei buruzko Foru Legeak interes kulturalako ondasunei esleitzen dizkien eskubideak eta betebeharrak betetzea, herritarrek haietarako irispidea izateari dagokionez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Galdera, enplegu inklusiboko ekimenak aurkezteko eta gauzatzeko epeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enplegu inklusiboko ekimenak aurkezteko eta gauzatzeko epeari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

ehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (10- 21/PES-00342) enplegu inklusiboko programak garatzeko dirulaguntzen deialdian eskaerak aurkezteko epeari buruz. Hona

Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak ematen dion informazioa:

NL-NEZeko zuzendari kudeatzailearen maiatzaren 14ko 1657E/2021 Ebazpenak enplegu inklusiboko programak egiteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onetsi zituen. Ebazpen horretan ezarritakoaren arabera, ez dago dirulaguntza horiek eskatzeko eperik. Luzarorako sortutako oinarri arautzaileak dira, eta indarrean jarraituko dute harik eta indargabetzen dituen ebazpen bat onetsi arte.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko enplegu inklusiboko ekintzaren eskari- eta gastu-aurreikuspenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko enplegu inklusiboko ekintzaren eskari- eta gastu-aurreikuspenei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak

galdera egin du (10-21/PES-00343) enplegu inklusiboko programak garatzeko dirulaguntzen deialdiko eskari-aurreikuspenei eta gastu-aurreikuspenei buruz. Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak ematen dion informazioa:

Aurreikuspena da 15 eskaera izanen direla eta guztira 400.000 euro egiten duten dirulaguntzak emanen direla.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, enplegu-zentro berezientzako laguntzen zenbatekoari eta irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enplegu-zentro berezientzako laguntzen zenbatekoari eta irizpideei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (10-21/PES-00344) enplegu-zentro berezien finantza-orekarako laguntzen zenbatekoari eta emateko irizpideei buruz. Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen uztailaren 5eko 2640E/2021 Ebazpenaren bidez, enplegu-zentro berezien bideragarritasunerako laguntzen deialdia onetsi zen. Deialdi horren hirugarren oinarriak dirulaguntzaren zenbatekoa arautzen du diruz laguntzen ahal den jarduketaren arabera. Bigarren oinarriak diruz laguntzen ahal diren bi jarduketa arautzen ditu:

- Enplegu-zentro berezien finantza-egoera zaila gainditzeko finantzabidea emanen da, soldaten kostuen portzentaje jakin bat ordaintzeko

dirulaguntza emanez, zentroen bideragarritasunari eta desgaitasuna izanda haietan lan egiten duten pertsonen lanpostuei eusten laguntzeko.

- Enplegu-zentro bereziek 2020ko ekitaldian zergak ordaindu aurretik izandako emaitza negatiboak finantzatu dira, zentroen bideragarritasunari eta desgaitasuna izanda haietan lan egiten duten pertsonen lanpostuei eusten laguntzeko.

Hirugarren oinarriaren arabera, lehenbiziko kasuan, desgaitasuna izan eta enplegu-zentro berezietan lan egiten duten pertsonen soldata-kostua finantzatu da lanbide arteko gutxieneko soldataren % 10 emanez, benetan egindako lanaldiaren proportzioan, 2020ko martxoaren 16tik abenduaren 31ra arteko egunetan, baldin eta pertsona ez bada egon aldi baterako enplegu erregulazioko espediente baten pean. Bigarren kasuan, enplegu-zentro bereziak 2020ko ekitaldian zergak ordaindu aurretik izandako emaitza negatiboaren % 80 izanen da dirulaguntzaren zenbatekoa, 180.000 euroko muga gainditu gabe.

Seigarren oinarriak dioenez, dirulaguntza emateko prozedura banakako ebaluazioa izanen da. Beraz, ez da eginen norgehiagokako prozesua, aurkeztutako eskaeren balorazioarekin; aitzitik, deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaerei dirulaguntza emanen zaie.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, enplegu-zentro berezientzako laguntzak ebazteko eta ordaintzeko datei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enplegu-zentro berezientzako laguntzak ebazteko eta ordaintzeko datei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (10-21/PES-00345) enplegu-zentro berezien finantza-orekarako laguntzak emateko eta ordaintzeko aurreikuspe-

nari buruz. Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen uztailaren 5eko 2640E/2021 Ebazpenaren bidez, enplegu-zentro berezien bideragarritasunerako laguntzen deialdia onetsi zen. Laguntzak emateko prozedura banakako ebaluazioa da. Aste honetan da onestekoa eskatutako laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena. Laguntza emateko ebazpena onetsi eta hurrengo astean egingen da ordainketa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, enplegu-zentro berezientzako laguntzetarako partiden aurrekontu-aldaketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enplegu-zentro berezientzako laguntzetarako partiden aurrekontu-aldaketei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (10-21/PES-00346) "COVID-19a. Enplegu-zentro berezien oreka finantzariorako laguntzak" izeneko partidaren aurrekontu-aldaketei buruz. Hona Nafarroako

Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

2021eko maiatzean 950001 96100 4709 241116 aurrekontu-partida sortu zen, "COVID-19a. Enplegu-zentro berezientzako laguntzak" izeneko. Hura hornitzeko, 950001 96100 4709 241113 partidaren ("COVID-19a. Enplegu-zentro berezien oreka finantzariorako laguntzak") baliagarri zegoen kreditua erabili zen (700.000 euro). Hona partida hori sortu eta hornitu izanaren justifikazioa: lehengo izenarekin finantza-orekarik gabeko kasuetara mugatzen zen zentroentzako laguntza, baina beharrezkotzat jo zen, zentro horien emaitza ekonomiko negatiboak ez ezik, desgaitasuna izan eta entitate horietan lan egiten duten pertsonen soldata kostuen portzentaje jakin bat ere ordaintzea osasun krisialdian zehar, betiere pertsona ABEEE baten pean egona ez bazen. Horregatik, aurrekontuan aldaketa egiteko espediente izapidetu zen, eta gero Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudea-

tzailearen uztailaren 5eko 2640E/2021 Ebazpena onetsi zen, enplegu-zentro berezien bideragarritasunerako dirulaguntzen deialdiarekin, zeinean bat egiten baitute aipatutako bi jarduketek.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, “COVID-19a. Enplegu-zentro berezientzako laguntzak” partidarako aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “COVID-19a. Enplegu-zentro berezientzako laguntzak” partidarako aurreikusitako jarduketei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (10-21/PES-00347), “COVID-19a. Enplegu-zentro berezientzako laguntzak” izeneko partida baliatuta zer egin nahi den jakiteko. Hona Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Aurreko informazio-eskaerei erantzunez jakinarazi den bezala, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen uztailaren 5eko 2640E/2021 Ebazpenaren bidez enplegu-zentro berezien bideragarritasunerako laguntzen deialdia onetsi zen. Deialdi horrekin baimendu zen “COVID 19a. Enplegu-zentro berezientzako laguntzak” izeneko partidako kreditu baliagarria (700.000 euro).

Deialdi horren bigarren oinarriak diruz laguntzen ahal diren bi jarduketa arautzen ditu:

- Enplegu-zentro berezien finantza-egoera zaila gainditzeko finantzabidea ematen da, soldaten kostuen portzentaje jakin bat ordaintzeko dirulaguntza emanez, zentroen bideragarritasunari eta desgaitasuna izanda haietan lan egiten duten pertsonen lanpostuei eusten laguntzeko.
- Enplegu-zentro bereziek 2020ko ekitaldian zergak ordaindu aurretik izandako emaitza negatiboak finantzatuko dira, zentroen bideragarritasunari eta desgaitasuna izanda haietan lan egiten duten pertsonen lanpostuei eusten laguntzeko.

Hirugarren oinarriaren arabera, lehenbiziko kasuan, desgaitasuna izan eta enplegu-zentro berezietan lan egiten duten pertsonen soldata-kostua finantzatuko da lanbide arteko gutxieneko soldataren % 10 emanez, benetan egindako lanaldiaren proportzioan, 2020ko martxoaren 16tik abenduaren 31ra arteko egunetan, baldin eta pertsona ez bada egon aldi baterako enplegu erregulazioko espediente baten pean. Bigarren kasuan, enplegu-zentro bereziak 2020ko ekitaldian zergak ordaindu aurretik izandako emaitza negatiboaren % 80 izanen da dirulaguntzaren zenbatekoa, 180.000 euroko muga gainditu gabe.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, haur eta gazteen osasun mentala artatzeko psikiatren agendak berrantolatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, haur eta gazteen osasun mentala artatzeko psikiatren agendak berrantolatzeari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00348), jakin nahi baitu nola berrantolatu diren haur eta gazteen osasun mentala artatzeko psikiatren agendak. Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Ebaluazio taldea kendu egin zen. Hala, profesionalek zuzenean hartzen dituzte pazienteak lehen kontsultan, eta beharrezkoa denean jarraipenaz eta tratamenduaz arduratzen dira.

Halaber, behin-behinean, Oinarrizko Osasun Laguntzatik bideratutako pazienteak poltsa orokor batean sartzen dira, kontsulta-orritik kontsultatorrira balorazioa egin eta arreta lehenetsi ahal izateko. Horrela lehentasunezko eta presako arreta bermatzen zaio hala behar duenari.

Bestalde, profesionalen defizitak eraginda, jarduera ohiko neurriaz gaindi hedatu behar izan da eskariari erantzuteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 18an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Atzerritartasun arloko Arreta eta Aholkularitza guneetan egin daitezkeen zuzemenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Atzerritartasun arloko Arreta eta Aholkularitza guneetan egin daitezkeen zuzemenei buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 3ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen

Jorge Esparza Garrido jaunak galdera batzuk egin ditu, idatziz erantzutekoak (10-21/PES-00349). Hona hemen Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Bai, zuzemen berberak egin daitezke Nafarroako Gobernuako Atzerritartasun arloko Arreta eta Aholkularitza Zerbitzua osatzen duten gune guztietan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 24an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Atzerritartasun arloko Arreta eta Aholkularitza Zerbitzuaren ordutegiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Atzerritartasun arloko Arreta eta Aholkularitza Zerbitzuaren ordutegiari buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 3ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduraren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00350). Hona hemen Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Parlamentari jaunaren galderan eskatzen diren datu zehatzak Legebiltzarreko Erregelamendua-

ren 14. artikuluko erregelamenduzko prozedurari jarraituz eskatu behar dira. Hala ere, idatzizko erantzuna emanen da, edozein erabiltzaile interesdunek informazio hori jaso baitezake Zerbitzura bertara edo Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren bulegoetara jotzen edo deitzen duenean.

Hona Iruñeko arreta gunearen ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00-15:00, eta gainera astelehen eta ostegunetan 16:00-18:30. Lizarrakoa zabalik dago asteartetik ostiralera 08:00-15:00 bitartean, eta astearte eta ostegunetan baita 16:00-18:30 bitartean ere. Lodosakoa astelehenean zabaltzen da jendearentzat, 08:00etatik 15:00etara. Tafallako gunearen ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00-15:00, eta asteazken eta ostegun arratsaldeetan ere bai (16:30-19:00). Altsasun arreta ematen da astelehen, asteazken, ostegun eta ostiraletan 08:00etatik 14:00ak arte eta asteartean 15:00etatik 21:00ak arte. Zangozan arreta ematen da astelehenetik ostiralera 09:00etatik 15:00ak arte, eta astelehen eta asteartean baita 16:30etik 19:00ak arte ere. Tuteran

astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara ematen da arreta, eta gainera arratsalde zabal-tzen da astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan, 16:00etatik 18:30era. Cintruenigoko eta Castejongo guneeek eskariaren arabera ematen dute aurrez aurreko arreta.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 24an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00350). Hona hemen Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak ematen duen erantzuna, Parlamentuko letradu nagusiak 2021eko abenduaren 9ko txostenean adierazitakoa betez:

Hona Iruñeko arreta gunearen ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00-15:00, eta gainera astelehen eta ostegunetan 16:00-18:30.

Lizarrakoa zabalik dago asteartetik ostiralera 08:00-15:00 bitartean, eta astearte eta ostegunetan baita 16:00-18:30 bitartean ere.

Lodosakoa astelehenetan zabalitzen da jendearentzat, 08:00etatik 15:00etara.

Tafallako gunearen ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00-15:00, eta asteazken eta ostegun arratsaldeetan ere bai (16:30-19:00).

Altsasun arreta ematen da astelehen, asteazken, ostegun eta ostiraletan 08:00etatik 14:00ak arte eta astearteetan 15:00etatik 21:00ak arte.

Zangozan arreta ematen da astelehenetik ostiralera 09:00etatik 15:00ak arte, eta astelehen eta astearteetan baita 16:30etik 19:00ak arte ere.

Tuteran astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara ematen da arreta, eta gainera arratsalde zabalitzen da astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan, 16:00etatik 18:30era.

Cintruenigoko eta Castejongo guneeek eskariaren arabera ematen dute aurrez aurreko arreta.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 14an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Atzeritartasun arloko Arreta eta Aholkularitza gunetako itxarote-zerrendei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Atzeritartasun arloko Arreta eta Aholkularitza gunetako itxarote-zerrendei buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 3ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen

Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00351). Hona hemen Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Parlamentari jaunaren galderan eskatzen diren datu zehatzak Legebiltzarreko Erregelamenduaren 14. artikuluko erregelamenduzko prozedurari jarraituz eskatu behar dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 23an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00351). Hona hemen Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak ematen duen erantzuna, Parlamentuko letradu nagusiak abenduaren 9ko ohar-txostenean adierazitakoa betez:

Eskualdeak	Erantzuteko denbora
Iruña	Astebete
Tuterako eskualdea	24 h / 48 h
Tafalla	24 h / 48 h
Lizarrako eskualdea	Aste berean
Altsasu	Aste berean
Zanghoza	Egun berean
Espetxea	Hilabete bakoitzeko lehen ostegunean

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan

xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 15ean

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Atzerritartasun arloko Arreta eta Aholkularitza guneetako baliabide materialei eta giza baliabideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Atzerritartasun arloko Arreta eta Aholkularitza guneetako baliabide materialei eta giza baliabideei buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 3ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00352). Hona hemen Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Parlamentari jaunaren galderan eskatzen diren datu zehatzak Legebiltzarreko Erregelamenduen 14. artikuluko erregelamenduzko prozedurari jarraituz eskatu behar dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 24an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00352). Hona hemen Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak ematen duen erantzuna, Parlamentuko letradu nagusiak abenduaren 9ko ohar-txostenean adierazitakoa betez:

Zerbitzu horretan honako baliabide material eta giza baliabide hauek daude:

- Bulego bat Iruñean, 4 pertsonarekin
- Bulego bat Lizarran eta beste bat Lodosan. Pertsona berak ematen du arreta bietan.

Astelehenetan Lodosan, eta asteartetik ostiralera Lizarran.

- Bulego bat Tafallan, pertsona batekin
- Bulego bat Altsasun, pertsona batekin

- Bulego bat Zangozan, pertsona batekin
- Bulego bana Tuteran, Cintruenigon eta Castejonon. Bi pertsonak ematen dute arreta hirurretan. Astelehenetik ostiralera Tuteran, eta eskariaren arabera Cintruenigon eta Castejonon.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamen-

tuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 14an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Atzerritartasun arloko Arreta eta Aholkularitza guneetan batez beste itxaron beharreko denborari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Atzerritartasun arloko Arreta eta Aholkularitza guneetan batez beste itxaron beharreko denborari buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 3ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitatu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00353). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Parlamentari jaunaren galderan eskatzen diren datu zehatzak Legebiltza-rreko Erregelamendua-

ren 14. artikuluko erregelamenduzko prozedurari jarrai-tuz eskatu behar dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua-ren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 24an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00353). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak ematen duen erantzuna, Parlamentuko letradu nagusiak abenduaren 9ko ohar-txostenean adierazitakoa betez:

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 14an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria, Eduardo Santos Itoiz

Erantzuteko denbora, eskaera egiten denetik telefono bidezko lehenbiziko esku-hartzea egiten den arte.

ESKUALDEAK	ERANTZUTEKO DENBORA	OHARRAK
IRUÑA	Astebete	Zerbitzua dei asko jasotzen ari da. Horregatik astebete itxaron behar da zerbitzua norberarekin harremanetan jarri arte.
TUTERAKO ESKUALDEA	24 h / 48 h	Plantillan beste teknikari bat sartu denetik nabarmen laburtu da itxaron beharreko denbora, bai telefono bidezko arretan bai aurrez aurreko arretan.
TAFALLA	24 h / 48 h	Ez dago telefonogunerik. Ahaleginak egiten dira kontsultei berehala erantzuteko telefonoz eta posta elektronikoz. Erantzungailua jarri da, eta langileek excel bat daukate elkarren artean, eskaerak bertan jasotzeko.
LIZARRAKO ESKUALDEA	Aste berean	Ez dago telefonogunerik. Arreta-ordutegian deiak hartzen dira eta kontsulta telefonoz edo posta elektronikoz egiteko aukera ematen da, esku-hartzea bizkortzeko. Teknikariak adierazi du erabiltzaile askok egoitzara jotzen dutela hitzordua eskatzera (gutxiago erabiltzen dute telefonoa).
ALTSASU	Aste berean	Ez dago telefonogunerik. Hiru laurdeneko lanaldia duen teknikari batek osatzen du zerbitzua, eta arreta emateak denbora gehiena hartzen dio. Erantzungailua jarri da.
ZANGOZA	Egun berean	Ahaleginak egiten dira aste berean arreta emateko. Zerbitzuaren erabiltzaileetako batzuek Gurutze Gorriaren beste proiektu batzuetan parte hartu ohi dute.
ESPETXEA	Hilabete bakoitzeko lehen ostegunean	Azaroaren 11n normaltasunez joan gara espetxera.

Teknikariarekiko lehen harremanetik aurrez aurreko hitzordura arte itxaron beharreko denbora.

ESKUALDEAK	ERANTZUTEKO DENBORA	OHARRAK
IRUÑA	Aste berean edo hurrengoan	Kasua zailagoa denean edo eskaera telematikoa egin behar denean, aurrez aurreko hitzordua ezartzen da.
TUTERAKO ESKUALDEA	Aste berean	Kasua zailagoa denean edo eskaera telematikoa egin behar denean, aurrez aurreko hitzordua ezartzen da.
TAFALLA	15 egun	Kasua zailagoa denean edo eskaera telematikoa egin behar denean, aurrez aurreko hitzordua ezartzen da.
LIZARRAKO ESKUALDEA	20 egun	Lehen esan bezala, pertsona askori ematen zaie arreta aurrez aurre. Egunean batez beste 7-8 hitzordu ematen dira aurrez aurreko arretarako. Hori, neurri handian, hizkuntza erabiltzeko zailtasunaren ondorio da.
ALTSASU	7-14 egun bitarte	Eskualdeko eskaeren kopurua modu esponentzian hazten ari da (hiru hilean behingo txostenean aztertuko da).
ZANGOZA	Aste berean	Ahaleginak egiten dira aste berean arreta emateko. Zerbitzuaren erabiltzaileetako batzuek Gurutze Gorriaren beste proiektu batzuetan parte hartu ohi dute.
ESPETXEA	Egun berean	Hilean behin joaten gara.

Galdera, Lekarozko “Baztan” Gazteen Aterpetxeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lekarozko “Baztan” Gazteen Aterpetxeari buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 3ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00354), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

Batzordeko kideek iragan uztailearen 23an egindako bisitan egiaztatu ahal izan genuenez, kaskarra da Lekarozko “Baztan” Gazteen Aterpetxeiko instalazioen egoera. Hori horrela, Nafarroako Gobernuak

ba al du bertan hobetze-lanik egiteko asmorik? (Hala baldin bada,

zehaztu zer aurreikusi den)

Pandemiaren ondorioz, bai 2020ko aurrekontu-ekitaldian bai oraingoan beste partida batzuetan gauzatu gabeko aurrekontuaren zati bat erabili da, hain zuzen ere osasun-baldintzen ondorioz bertan behera utzitako zenbait jarduerari dagokiena, aurreikusi gabeko hobetze-lan batzuk egiteko Nafarroako Gazteriaren Institutuari atxikitako gazte aterpetxeen instalazioetan eta ekipamenduan.

Lekarozko “Baztan” Aterpetxearen kasuan:

2020an kanpoaldea txukundu zen igerileku zaharraren inguruan. Bertan 30.000 eurotik gora inbertitu ziren perimetroko itxiturako zuhaitzak, heskaia eta metalezko hesia kentzeko, aldagelen zati bat eraisteko eta lurzatia eta argindarraren kanalizazioak egokitzeko.

2021ean beste jarduketa batzuk egin dira, 4.877,32 euro jarrita. Horien artean nabarmentzen da aterpetxeiko sarreretako arrapalen konponketa. Lan horiek sarrera nagusian eta sukaldara ematen duen atzeko sarreran egin dira.

Urtea amaitu baino lehen aurreikusita dago aterpetxeiko oheetako asko eta armairu batzuk aldatzea. Horretarako 12.000 euro inguru jarriko dira.

Ekipamenduari dagozkion jarduketa horiek aurrekontu-baliabideen araberako segida izanen dute 2022an.

Gainera, arkupe bateko sabaia konpondu nahi da heldu den urtean, 2.300 euro inguru jarrita.

Bestalde, Nafarroako Gazteriaren Institutuak Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiko Trantsizio Energetikoaren Zerbitzuarekin harremanetan jarri da horko teknikari batek instalazioa bisitatu dezan 2021eko azaroan eta azter dezan zer aukera dagoen eraikinean hobekuntzak egiteko, energia-efizientziaren ikuspuntutik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 24an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguí

Galdera, garraio-txartel bateratuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, garraio-txartel bateratuari buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 3ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bernardo Ciriza Pérez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00355), jakin nahi baitu zer aurrerabide egin den garraio-txartel bateratuaren ezarpenean, horretarako ibilbide-orririk ba al dagoen, eta noizko aurreikusten duen Nafarroako Gobernuak ezarriko dela txartela. Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak horretaz ematen dion informazioa: Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiak aztertu egin du zer aukera dagoen txartel hori eta ordezkoko beste ticketing sistema batzuk ezartzeko, sistema bakoitzaren ezarpen eta mantentze kostuari erreparatuta, eta kontuan hartuta hiri barneko eta hiriarteko sareen beharrak, mugak eta eskakizunak, sistema horien egungo bilakaera teknologikoa eta Iruñerriko Mankomunitateko hiri garraio sarearekiko integrazioarako edo interoperabilitaterako ahalbideak.

Aztergai horietatik abiatuta, Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusia lanean ari da teknologia mugikorraren erabileran oinarritutako ticketing sistema bat martxan jartzeko, halako moduan non Nafarroako Foru

Komunitate osoan erabili ahalko baita, hala Administrazio honen titulartasuneko hiriarteko garraio sarean nola Iruñerriko Mankomunitatearen hiri garraio sarean edo atxiki daitezkeen beste batzuetan, Tuterakoan, adibidez.

Ordainketa sistema moderno horri esker, telefono mugikorraren bitartez jakin ahalko da erabiltzaileek zer ezaugarri dituzten eta nola erabiltzen duten garraio publikoa. Gainera, informazio hori baliatuta tarifa-politika zehatzak ezarri ahalko dira, garraio publikoaren erabilera sustatuko dutenak.

Hiriarteko sareari dagokionez, ticketing sistemak bat eginen du martxan jartzekoa den Modernizazio Sistemarekin (SAE). Azken hori pausoz pauso ezartzen ari da Nafarroan, bidaiariak errepidez garraiatzeko erabilera orokorreko zerbitzu publiko erregularren emakidetan.

Sistema horrek hobetu eginen du zerbitzuaren prestazioaren kontrola, eta bihar-etzi informazioa ere emanen du ibilgailuen kokapenez, geralekue-tara iristeko falta den denboraz eta abarrez. Erabiltzaileentzako informazioa hobetzeaz gain, modernizazio sistema berriak Foru Administrazioari ahalbidetuko dio tresna teknologiko eraginkorrek edukitzea zehatz-mehatz jakin ahal izateko zenbat diren bidaiariak, zein geralekutan sartzen edo irteten diren, edo zein diren eskari handieneko zerbitzuak eta ordutegiak. Horrela, bildutako informazioa zerbitzua etengabe hobetzeko erabili ahalko da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 21ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea Lurralde-lankidetzako Europako Taldearen ekimenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea Lurralde-lankidetzako Europako Taldearen ekimenei buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 3ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak 10-21/PES-00356 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hauxe da horri buruz Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak ematen duen informazioa:

Nafarroa ez da Euroeskualdeko kide izan galderan aipatzen den denbora-tarte osoan (2014-2020). Beraz, zuzenean Euroeskualdera jo behar du zenuke argibide eske.

Nolanahi ere, Plan Estrategikoa 2014-2020. Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualdea (euroregion-naen.eu) webgunean 2014-2020 aldiari buruz eleaniztasunaren arloan ageri den informazioa eman ahal dizugu. Honako hau da:

Akitania-Euskadi Euroeskualdearen Plan Estrategikoa 2014-2020

4.1. Euroeskualdeko herritartasuna

1.1 jardun-ildoak.

ORO HAR BIZTANLERIAK ETA BEREZIKI PROFESIOALEN KOLEKTIBO JAKIN BAZUEK EUROESKUALDEKO HIZKUNTZEI BURUZ DAUKATEN JAKINTZA ETA ERABILERA MAILA HOBETZEA

Esparrua

Hizkuntza-oztopoa eragozpen handia da Akitaniako eta Euskadiko herritarrek elkar ezagutzeko, eta mugaz gaindiko enplegurako eta, beraz, lan-mugikortasunerako trebakuntza mugatzen du. Halaber, lankidetzak ekonomikorako aukerak eta lurralde-merkatu bakarraren enpresa-ahalmena baldintzatzen ditu. Gainera, gizarte-mugikortasuna

na murrizten du, eta, horren ondorioz, kultura-identitate partekatua ahuldu egiten da.

Gogoeta estrategikoa parte hartu duten ia eragile guztiek (kultura-eragileek, eragile ekonomikoek, prestakuntza-eragileek eta abar) azpimarratu dute hizkuntza-oztopoa gainditzeko eta "hizkuntza-konektibitatean" aurrera egiteko duen garrantzia. Hori dela-eta, eleaniztasun-arloko jardunak zeharkakoa izan behar du 2014-2020 aldi-ko Planean.

Akitania-Euskadi Euroeskualdeko lau hizkuntzek (okzitaniar, euskarak, gaztelaniak eta frantsesak) Euroeskualdeko funtsezko balio bat osatzen dute. Dena dela, ingelesa gazte askoren bigarren edo hirugarren hizkuntza da, eta bereziki azpimarratu beharra dago nazioarteko komunikazioen eta teknologia berrien garapeneren esparruan lortu duen hedapena. Joera natural horrek ondorio nabaria du Euroeskualdeko hizkuntza propioen ikaskuntzan.

Bestalde, euskarak Euroeskualdean duen errealitatea bereziki azpimarratu beharra dago. Izan ere, euskara Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza propioa da euskararen normalizazioari buruzko 1982ko euskal legeen arabera. Gainera, hiztunak ditu Akitanian, eta Akitaniako hezkuntza nazionalak eta kolektibitate publikoek babestu egiten dute.

Euskara, gaztelania bezalaxe, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala da. Euskara, beraz, hizkuntza ofiziala da Euskadi-Akitaniako lurraldearen zati batean. Mugaz gaindiko izaera horrek komunikazio-balio berezia ematen dio euskarari.

Hori dela-eta, Akitania-Euskadi deialdiak hainbat proiektu eta jardun sustatu ditu, bi eskualdeetan egin beharreko hizkuntza-trukeen eta lanbide-praktiken bitartez Euroeskualdeko hizkuntzen ikaskuntza garatzeko. LLETak bide hori garatzen jarraituko du, eta gainera, arestian finkatutako helburuak lortzeko beste ekimen batzuk babestuko ditu.

Helburu orokorra

Lortu nahi den helburua Euroeskualdeko herritarrek konektatuta egotea da, garraibide egokien zein hizkuntzaren bitartez. Europako herritartasuna eleaniztasunean oinarrituta eraikitzen da. Akitania-Euskadi Euroeskualdeak aberastasun hori

baduenez gero, eleaniztasunaren aberastasunaren iraunkortasunean laguntzea izango da LLETaren helburuetako bat, identitatearen berezko elementua baita.

Deskribapena

Euroeskualdeko estrategiak honako helburu hauek ditu hizkuntzen arloan:

- Euroeskualdeko hizkuntzetako ikasleen kopurua handitzea, eta, horretarako, bereziki haurrak eta gazteak bultzatzea.

- Lehenetsuneko kolektiboetan (merkatariak, ostalariak, turismo-eragileak eta abar) Euroeskualdeko hizkuntzen jakintza eta erabilera sustatzea.

- Oro har, Euroeskualdeko hizkuntza propioen ikaskuntza sustatzea.

Helburu horiek lortzeko, prestakuntza, sentsibilizazio eta komunikazioko ekintzak, informazioaren teknologia berriak baliatzeko ekintzak eta abar egin behar dira.

Ekintza

Euroeskualdeko hizkuntza-egoerari buruzko azterketa sakona egitea eta biztanleria sentsibilizatzea Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteak duen balioari buruz

Herritarrek Euroeskualdeko hizkuntzen jakintzan duten mailari buruzko azterlan soziolinguistikoko bat egitea ezinbesteko baldintza da eleaniztasunaren suspertzearen arloan helburu kuantitatiboak ezartzeko eta planteatzen diren jardunen inpaktua eta eraginkortasuna ebaluatzeko.

Eusko Jaurlaritzak, estatistika-eragiketa ofizial gisa, euskararen gizarte-bilakaerari buruzko bost urteko bi azterlan soziolinguistikoko egiten ari da: Inkesta Soziolinguistikoa (azkenak 2011. urteko eta euskararen lurralde guztietako –EAE, Nafarroa eta Iparraldeko– datuak biltzen ditu), eta Mapa Soziolinguistikoa (azkenak 2011. urteko eta EAEko datuak biltzen ditu).

Eusko Jaurlaritzaren azterlan horietatik aparte, gai horri buruz dagoen informazioa partziala eta zatikatua da, eta ez dago Euroeskualdeko lau hizkuntzen hedadura-mailaren argazki zehatzik. Horrela, beraz, ezin zaie erantzun bateratu edo global bat eman honako galdera hauei: zenbat eleaniztun daude Euroeskualdean hizkuntza propioetan? Zein da hizkuntza horien jakintza- eta erabilera-maila Euroeskualdeko enpresetan? Zein da jakintza- eta erabilera-maila saltokietan? Eta are neurri txikiagoan maila kolektiboan arabera kontuan hartuta (adina, jatorria, bizilekua, jardura-sektorea eta abar).

Hori guztia dela-eta, bidezkotzat hartzen da Euroeskualdeko hizkuntza-egoera hobeto dokumentatzea eta diagnostiko demolinguistikoa-ren aldizkako jarraipen bat aurreikustea (oraindik zehazteko dago). Horretarako, gaiaren ikuspegi bateratu bat izatea ahalbidetuko duten gutxieneko irizpide komun batzuetan (helburu-biztanleria, erabilgaitasun kontzeptuak, ikerketaren norainokoa, balioesteko aldiak eta abar) oinarrituta antolatu beharreko estatistika-eragiketa egokiak planteatu behar dira.

Bestalde, hizkuntza propioak jakiteak eta erabiltzeko duen balioaren eta eskaintzen dituen ahalmenen inguruko mezu garbiak helarazi behar zaizkie Euroeskualdeko biztanle guztiei: enplegua lortzeko aukera gehiago, merkatu berrietan sartzeko eta kultura-eskaintza berriak lortzeko aukera eta abar. Horretarako, Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteak duen garrantziari buruzko zabalkundekampainak egin behar dira, erakartzeko ahalmena handiagoa izan dadin. Horrek Akitaniaren eta Euskadiren arteko lotura estuagoen garapena bultzatuko du, kulturaren, jardura ekonomikoaren eta hezkuntzaren eremuan batez ere.

Ekintza

Euroeskualdeko lurraldeko hizkuntza propioak eta bereziki euskara babestea ondare eta hizkuntza komun gisa

Euroeskualdeko hizkuntza propioei –euskarari eta okzitaniari– arreta berezia eskaini behar zaie. Bi kasuetan, Euroeskualdeko hizkuntza horietan hitz egin eta bizi nahi duten herritarrek hizkuntza-aukerei dagokienez jasaten duten berdintasunik ezaren arazoari egin behar zaio aurre. Euroganberak hizkuntza horiek babesteko eta haien jakintza eta erabilera sustatzeko beharra aldarrikatu du.

Euskara, gainera, Euroeskualdeko ondarea eta mugaz gaindiko lankidetzarako baliabide nagusietako bat da. Euroeskualdeko lurraldearen zati batean duen hizkuntza ofizialaren estatusari dagozkion balio praktiko eta operatiboak lotzen ditu euskarak. Hortaz, erabateko balioa du Euroeskualdeko lan-merkatuan, eta, bereziki, Euroeskualdeko sare sozioekonomikoaren funtsezko sektore batzuetan, hala nola ostalaritzan, merkataritzan, zerbitzu-enpresetan, garraioan, aisian, kulturen eta abar. Azpimarratu beharra dago, halaber, euskarak mugaz gaindiko lan-mugikortasunari eta elkartruke profesional, akademiko eta kulturalari egiten dion ekarpena. Horrela, beraz, esan daiteke euskara ia ezinbesteko hizkuntza dela Euroeskualdeko zati handi bateko jardura ekonomiko eta kulturalaren hainbat eremutan.

Hain zuzen ere errealitate horretan oinarrituta, oso praktika eredugarria sortu da mugaz gaindiko lankidetzan. Izan ere, Ipar Euskal Herrian euskara sustatzeaz arduratzen den Estatuko erakundeak (Euskararen Erakunde Publikoa / Office Public de la Langue Basque izenekoak) eta Eusko Jaurlaritzak oso emaitza onekin dihardute lankidetzan Ipar Euskal Herrian euskara sustatzeko, lankidetzaz hitzarmenen bitartez. Hitzarmen horietako lehenengoa 2007an izenpetu zen 2007-2010 aldirako, eta bigarrena 2011-2016 aldirako ezarri da. Elkarrekiko erakunde-errespetuaren oinarritzeko printzipioa abiapuntutzat hartuta, bi erakunde horiek tinko dihardute lankidetzan Ipar Euskal Herrian euskara bultzatzeko, eta elkarrekin laguntzen dute horretarako eraginkorrenak diren eragileak eta programak finantzatzeko.

Hala eta guztiz ere, Euroeskualdeko hizkuntza-aniztasun aberatsari mugaren bi aldeetako milaka hiztunekin ekarpen handia egiten dion Euroeskualdeko hizkuntza propio horri bide luzea gertzen zaio oraindik erabateko normalizazioa lortzeko. Hori dela-eta, eta Euroeskualdeko lau hizkuntzen eta hiztunen arteko harreman orekatu eta emankorrean aurrera egiteko, bereziki garrantzitsua da euskararen jakintza eta erabilera hizkuntza hori erabiltzen den Euroeskualdeko eremuetan areagotzeko programak sustatzen jarraitzea eta elebidunen eta euskara erabiltzeko aukeren gehikuntza bultzatzea.

Euroeskualdeko estrategiak honako ardatz hauek izango ditu:

- Ikasle eta helduengan euskararen irakaskuntza sustatzea.

- Aurreko 1.1.1, 1.1.2 eta 1.1.3 ekintzetan deskribatutako neurriak aplikatzea eta, bereziki, eremu urriko hizkuntzetan informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera bultzatzea (prestakuntza-programak, online itzul-tzaileak eta abar) eta gazteei zuzendutako ekimenean oinarritzea.

- Komunikabideak eta haietan diharduten profesionalak Euroeskualdearen eremua hedatzeko proiektuan sartzea.

- Euskaraz eta okzitaniaraz egindako kultura- eta arte-proiektuak, eta hizkuntza horietan aisia- ren eta entretenimenduaren inguruan egindako proiektuak bultzatzea.

Ekintza

Ikasleen artean Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteko aukera sustatzea

Hezkuntza- eta prestakuntza-alorra funtsezkoa da eleaniztasun-estrategia orotan. Euroeskualde-

ko hizkuntzen jakintza eta erabilera prestakuntzaren alorrean kokatutako edo alor horri lotutako honako elementu hauetatik abiatuta bultzatzea planteatu da:

- Irakasleak hizkuntza-gaitasunetan eta hizkuntzaren didaktikan prestatzen inbertitzea:

hizkuntza-teknikarien sare egoki bat sortzea.

- Maila lortzeko irakaskuntza-sistemetan ziurtagiriak hedatu eta integratzea eta, era horretan, mugarren identifikazioa eta helburuen ezarpena erraztea. Gaitasunak ebaluatzeko erreferente komun bat ezartzea.

- Irakasleen mugikortasuna eta langileak trukatzeko programak bultzatzea.

- Euroeskualdeko gazteen arteko kultura- eta prestakuntza-trukeak bultzatu eta sendotzea, eta kirolaren alorrean egiten direnekin osatzea.

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak (IKTB) hobeto baliatzea, hizkuntzen ikaskuntza sustatzeko. Gogoeta estrategikoan parte hartu duten eragileek diotenez, baliabide digitalak gutxiegi erabiltzen dira, eta IKTBen eta komunikabideen erabilera neurri handiagoan sustatu behar da hizkuntzak hedatzeko mekanismo gisa.

- Euroeskualdeko lurraldeetan hizkuntzaz arduratzen diren erakundearen arteko koordinazioa sustatzea.

- Euroeskualdeko hizkuntzak ikastea erraztuko duen beka-programa bat aztertzea.

Ekintza

Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteko aukera sustatzea hainbat lanbide-sektore espezifikoan, hala nola merkataritzan, ostalaritzan eta turismoan

Hezkuntzaren eremuan esku hartzeaz gain (ikasleak eta ikastetxeak/irakasleak), bidezkoztat hartzen da sektore-estrategiak garatzea zerbitzuen sektoreko profesionalen artean Euroeskualdeko hizkuntzen jakintza eta erabilera hobetzeko, profesional horiek harreman handiagoak baitituzte beste eskualdeko pertsonekin. Azken batean, hizkuntza propioen erabilera sustatu behar da Euroeskualdeko benetako herritartasuna finkatzeko prozesuan aurrera egiteko garaian aktore pribilegiatuak diren sektoreetan (hots, merkataritzan, ostalaritzan eta turismoan, oro har). Horri esker, komunikazioa eta elkartrukeak bultzatu ahal izango dira, eta herritarrei kontsumitzaile gisa eskaini beharreko arreta hobetu ahal izango da.

Helburua (kuantifikatu ezin dena, abiapuntuko datua falta baita) honako hau da: Plan Estrategiko honen indarraldian, hautatutako sektoreetako

batean lan egiten duten eta Akitaniako bisitarien hizkuntza (Euskadin) edota Euskadiko bisitariaren hizkuntza (Akitanian) harrera- eta zerbitzu-hizkuntza gisa erabiltzeko gaitasuna duten pertsonen ehunekoa era esanguratsuan hobetzea.

Horretarako, honako hauek proposatzen dira:

- Hautatutako zerbitzuen hornitzaileei bezeroarekin oinarritzko komunikazio egoki bat izateko beharrezkoa den gutxieneko lexikoa menderatzea ahalbidetuko dieten modulu espezifikoak garatzea.

- Agente bitartekarien artean (hots, turismo-bulegoetako langileen, museoetako langileen eta abarren artean) elkartruke egituratuak antolatzea.

- Jendearentzako zerbitzuen kasuan Euroeskualdeko hizkuntzetan egiten den eskaintzari dagokionez ildo egokian aurrera egiten ari diren enpresen artean urteko onespenerako (zigilurako) sistemak ezartzearen egokitasuna aztertzea.

- Euroeskualdeko hizkuntzei ospea emateko eta jendearekin hizkuntza horietan hitz egin ahal izateak duen garrantzia agerian uzteko sustapenkanpainak egitea, komunikabideen edo beste euskarri batzuen bitartez, eta inplikaturako sektoreei zuzendutako zuzeneko mezuen bidez.

Luze joko duen, baina faseetan egituratuta egongo den eta ongi zehaztutako helburu-biztanleriak izango dituen ekintza bat planteatu daiteke (adibidez, tamaina edo eremu geografiko jakin bateko ostalaritzarekin edo merkataritzarekin has liteke, esperientzia pilotu gisa).

Epe luzeagora, eta dirudienez lankidetzaukera gehiago eskaintzen dituzten sektoreetan (osasunean, energian eta abar), garapen terminologikoa finka liteke helburu gisa.

Akitania-Euskadi Euroeskualdea LLETa ekin-tza hori egiteko beharrezkoak diren izapideak bideratuko dituen eragilea izan liteke.

ESTRATEGIAREN EGUNERATZEA 2017AN

Plan Estrategikoa eguneratu egin zen 2017an, Nafarroa Euroeskualdean sartu eta gero. Eguneratze horretan nabarmentzen da euskararen eta eleaniztasunaren arloan 9 proiektu egin direla, guztira 155.415 euroko dirulaguntza jasota (batez beste 17.268 euro proiektuko).

DIAGNOSTIKOA Euroeskualdeko herritartasuna

Aurrerapenak egin diren arren, hor jarraitzen du “mugak”, eta beharrezkoa da hiru eskualdeen arteko ezagutza-maila handiagoa; ez dago Euroeskualde sentimendurik; alde kulturalak nabariak; lan egiteko modu ezberdinak; hizkuntza benetako

oztopoa da; elkartruke gutxi; ez dago garraio publikoko sare egokirik, etab.

ERRONKA

Hobeto konektatutako eta elkarren arteko harreman handiagoko biztanleria ahalbidetzea, elkarrekiko ezagutza eta Euroeskualdearen kontzientzia partekatua zailtzen dituzten oztopoak kenduz, gazteriarengan arreta berezia jarritz.

Euroeskualdearen Garapenerako Estrategiak mendetan muga izateak eragindako elkarren ezagutza falta, oztopo kulturalak eta beste gaindizten lagunduko duen prozesu bat bultzatu behar du. Orobat, LLETaren funtsezko erronkak izan behar dira pertsonen mugaz gaindiko mugikortasuna erraztea, haien arteko komunikazioa bultzatzea dagozkion hizkuntzak ikastea sustatuz. bai eta elementu kultural komunak garatzea ere, Euroeskualdearen partekatutako kontzientzia bat bultzatuz.

Hizkuntzen ezagutzari buruzko datuak

Hizkuntzen ezagutzari dagokionez, Frantziako espainieraren ezagutza-mailari buruzko datu ofizialak zaharkituta daude, 2002koak baitira INSE-Ek argitaratutako azkeneko datuak. Iturri horren arabera, Akitanian bizi diren 18 urtetik gorako biztanleen % 5,4k zioen espainieraz hitz egiteko eta idazteko gai zela. Frantsesaren Euskadiko ezagutza-mailari dagokionez, dauden azkeneko datuek (2016koak) erakusten dute biztanleen % 11k dioela hitz egiteko eta idazteko gai dela. Nafarroaren kasuan, % 21era iristen da portzentaje hori.

Espainiaren irakaskuntza eta ikaskuntzari dagokionez, eta Pirinioez Gaindiko Konferentzia Atlantikoak emandako informazioaren arabera, espainieraren irakaskuntza nabarmen ari da hazten Bidasoaren iparraldean (collèges); Bidasoaren hegoaldean, baina, garrantzi txikia du oraindik ere frantsesaren eskariak atzerriko lehenengo hizkuntza gisa.

Arreta 11-12 eta 18 urte bitarteko ikasleen kolektiboarengan jartzen badugu, egiaztatuko dugu askoz ohikoagoa dela Akitaniako ikasleen artean espainiera ikastea (% 66) Euskadiko eta Nafarroako ikasleen artean frantsesa ikastea baino (% 16 eta % 34, hurrenez hurren). Hori azaltzen duen arrazoi nagusia da Euskadiko eta Nafarroako hezkuntza-sistemetan atzerriko hizkuntza bakarra exijitzen dela nahitaez (atzerriko bigarren hezkuntza aukerazkoa da), eta Frantziako hezkuntza-sisteman, ordea, atzerriko bi hizkuntza direla nahitaezkoak.

Euskararen ezagutza-mailari dagokionez, Euskadiko biztanleen % 34 da euskal hiztuna, eta bestea % 19 euskaldun pasiboak dira, hau da,

euskara ulertzeko gai dira, baina ez hitz egiteko. Akitania Berriaren kasuan, eta Ipar Euskal Herrian hain zuzen ere, biztanleen % 21 da euskal hiztuna, eta beste % 9k dio euskara ulertzen duela baina ez duela hitz egiten; Ipar Euskal Herriaren barruan, nabarmentzekoak dira Behe Nafarroa eta Zuberoa, % 50 inguruko euskal hiztunen tasarekin, eta euskaldun pasiboen beste % 14ko portzentajearekin. Nafarroa osoa hartuta, txikiagoa da euskararen ezagutza-maila; biztanleen % 13 euskal hiztuna, eta beste % 10ek dio ulertzen duela baina ez duela hitz egiten (euskaldun pasiboak); nolana ere, Nafarroako eremu euskaldunean % 61eraino handitzen da portzentaje hori, eta % 13 gehiago dira euskaldun pasiboak.

Euroeskualdeko ikastetxeetan irakas-hizkuntza gisa euskara erabiltzen den neurriari dagokionez, Euskadiko haur eta lehen hezkuntzako ikasleen % 96 zegoen matrikulatuta eredu elebidunean edo euskarazko ereduan, 2016-2017 ikasturtean. Nafarroan, haur eta lehen hezkuntzako ikasleen matrikulazioen % 27 egin ziren euskarazko ereduetan.

Okzitanieraren presentziari dagokionez, erabilgarri ditugun datuek –2008an antzinako Akitaniako lurraldean egindako inkesta batekoak– erakusten dute % 9koa zela batere zailtasunik gabe hitz egiten zutela adierazi zutenen portzentajea. Portzentaje hori % 22ra iristen zen nolabaiteko zailtasunarekin hitz egiten zutela adierazten zuten pertsonak batuz gero.

Cuadro.2.1 Población de 11-12 a 18 años estudiante de francés y español

	%
NUEVA-AQUITANIA (collège y lycée)	
Español Lengua Viva 1 (LV1)	3,5
Español Lengua Viva 2 (LV2)	62,5
TOTAL	66,0
EUSKADI (secundaria y bachillerato)	
Francés asignatura obligatoria	2,7
Francés como asignatura optativa	13,5
TOTAL	16,5
NAVARRA (secundaria y bachillerato)	
Francés como asignatura obligatoria	1,3
Francés como asignatura optativa	32,8
TOTAL	34,1

Fuente: Ministerio de Educación Nacional de Francia. Curso 2017-2018 y Departamentos de Educación del Gobierno Vasco y Gobierno Foral de Navarra. Curso 2016-2017. Tomado del Informe EMPLEO promovido por la AECT Euroregión Nueva- Aquitania Euskadi Navarra.

ELEANIZTASUNARI BURUZKO NEURRIAK 2017AN EGUNERATUTAKO ESTRATEGIAN

LLET Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualdea Plan Estrategikoaren eguneratzea Euroeskualdearen strategiaren eguneratzea

Euroeskualdeko herritartasuna

1.1 jardun-ildoak

ORO HAR BIZTANLEEK, BATEZ ERE GAZTEEK, ETA BEREZIKI PROFESIOALEN KOLEKTIBO JAKIN BATZUEK, EUROESKUALDEKO HIZKUNTZEI BURUZ DAUKATEN JAKINTZA- ETA ERABILERA-MAILA HOBETZEA

Frantsesa-euskara eta frantsesa-okzitaniera irakasle elebidunen kopurua areagotuz gero, enplegu-aukerak areagotuko dira (gazteen enplegua).

Era berean, aipatu beharra dago Pirinioez gaindiko Konferentzia Atlantikoak garatzea aurreratu den proiektua, hain zuzen ere Irun eta Hondarribia mugako udalerrietan irakaskuntza arautuaren barnean frantsesaren ezagutza sustatzeko.

Era berean, eta azken hamarkadetan frantsesaren irakaskuntzan gertatu den protagonismoaren galera zuzentzeko, aipa daiteke duela gutxi ikerketa bat egin dela Gipuzkoan Frantses Lizeoa sortzeko aukera aztertuz.

Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualdeak garrantzia ematen dio hizkuntzaren oztopo gaituta eta Euroeskualdeko herritartasunaren kontzeptua eta identifikazioa garatzeko erronkari; hori garbi agertzen da behin eta berrir egin izan dituen eleaniztasunaren inguruko deialdietan, baina baita gazteen mugikortasunaren edo kultura- eta kirol-topaketan arloko beste ekimen batzuetan ere, non hizkuntza izan baitaiteke zeharkako ardatza.

Helburu orokorra

Lortu nahi den helburua Euroeskualdeko herritarrak konektatuta egotea da, hizkuntzaren bidez, eta horrela herritar horiek elkarrekin komunikatu eta elkar ezagutu ahal izatea. Europako herritartasuna eleaniztasuna oinarri hartuta eraikitzen da. Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualdeak aberastasun hori baduenez gero, LLETaren helburuetako bat izango da aberastasun horren iraunkortasunean laguntzea, Euroeskualdearen identitatearen berezko elementua baita.

Deskribapena

Euroeskualdeko strategiak honako helburu hauek ditu hizkuntzaren arloan:

– Euroeskualdeko hizkuntzetako ikasleen kopurua handitzea, eta, horretarako, bereziki haurrak eta gazteak bultzatzea. Era berean, bereziki Lanbide Heziketako sistemari jarriko zaio arreta; arlo horretan, eskumen handiak daude hiru lurraldeetan, eta, beraz, epe motzean jarduteko aukera handiagoa da.

– Euroeskualdeko hizkuntzen jakintza eta erabilera sustatzea helduen eta profesionalen artean, hau da, jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren arloan; bereziki landuko dira elkarreraginerako hizkuntza ezinbestekoa den jarduera ekonomikoak edo sektoreak (merkataritzak, ostalaritzak, turismoa, pertsonen arreta, eta abar).

– Oro har, Euroeskualdeko hizkuntza propioen ikaskuntza sustatzea.

Helburu horiek lortzeko, prestakuntza, sensibilizazio eta komunikazioko ekintzak, informazioaren teknologia berriak baliatzeko ekintzak eta abar egin behar dira.

Euroeskualdeko hizkuntza-egoerari buruzko azterketa sakona egitea eta biztanleak sensibilizatzea Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteak duen balioari buruz

Euroeskualdeko hizkuntzen jakintza-mailari buruz dagoen informazioa partziala eta zatitua da, eta ez dago argazki zehatzik Euroeskualdean lau hizkuntzak zenbateraino sartuta dauden jakiteko. Hori horrela, ez dago erantzun bateratu eta orokorrik zenbait galderari buruz, adibidez, Hizkuntza propioen zenbat herritar eleanitz daude Euroeskualdean? Zein da Euroeskualdeko enpresen jakintza- eta erabilera-maila? Zein da saltokietako jakintza- eta erabilera-maila? Are gutxiago, ez dago erantzun bateraturik kolektiboen arabera (adina, jatorria, bizilekua, jarduera-sektorea, eta abar) gaitasun-mailari buruz.

Euskarari dagokionez, Euskadi, Nafarroa eta Iparraldeko euskararen erabilerari buruzko datu estatistikoak daude eta aldi behingo (bost urtez behingo) eta eguneraturiko neurketa, azken datua 2016koa izanik (Soziolinguistika Klusterra). Euskal Adierazle Sistemaren garapena (EAS) oso garrantzitsua izan da euskararen egoera ezagutzeko. Sistema hori POCTEFA erakundeak finantzatu du eta Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, EEP erakundeak eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkai-ko foru aldundiek sustatu dute.

Okzitanierari dagokionez, hizkuntza horrek Akitanian duen presentzia eta erabilerari buruzko informazioa dago, baina 2008an eginiko inkesta bateko datuak dira.

Hizkuntza nagusiei dagokienez, frantsesari eta espainierari alegia, eguneraturiko informazio kon-

paragarririk ez dago (kontzeptu desberdinak erabiltzen dira ezagupen-maila neurtzeko).

Beraz, eleaniztasuna suspertzeko helburu kuantitatiboak ezartzeko eta harturiko neurrien eragina eta eraginkortasuna aztertzeko beharrezkoa da ikerketa soziolinguistiko bat egitea. Horretarako, beraz, dagozkion eragiketa estatistikoak proposatu behar dira. Eragiketa horiek antolatzeko gutxieneko irizpide batzuk adostu behar dira (xede diren biztanleak, erabilitako kontzeptuak, ikerketaren norainokoa, balorazio-aldiak, eta abar), gaiaren ikuspegi osoa izateko.

Bestalde, Euroeskualdeko biztanle guztiei mezu garbiak helarazi behar zaizkie, Euroeskualdeko hizkuntzak jakin eta erabiltzeak eskaintzen dituen balioa eta aukerak agertuz: enplegua lortzeko aukera gehiago, merkatu berrietan sartzeko eta kultura-eskaintza berriak lortzeko aukera eta abar. Horri dagokionez, goian aipaturiko Eskola Futura proiektua aipa daiteke. Proiektu hori Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualdeak sustatzen du, eta irakasle elebidun izan nahi duten mugaz bi aldeetako irakasle-ikasketetako ikasleei laguntza ematea du helburu. Bi helburu nagusi ditu: hiru eskualdeetako herritarren artean hizkuntza horien erabilera eta jakintza indartzea eta gazteen enplegua bideratzea. Proiektu hau oso ondo hartua izan da eta interes handia piztu du; horregatik, Plan Estrategikoaren hurrengo urteetan ere aurrera jarraitu behar du.

Azken batean, hedapen-kanpainak egin behar dira Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteak duen garrantziaren inguruan, haien erakargarritasuna areagotzeko. Horri esker lotura estuagoak ezarriko dira Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroaren artean, bereziki kulturaren, jarduera ekonomikoaren eta hezkuntzaren arloan.

Euroeskualdeko eremuko hizkuntzak eta bereziki euskara babestea ondare eta hizkuntza komun gisa

Euroeskualdeko hizkuntza propioei –euskarari eta okzitanierari– arreta berezia eskaini behar zaie. Bi kasuetan, Euroeskualdeko hizkuntza horietan hitz egin eta bizi nahi duten herritarrek arazo bati aurre egin behar diote, alegia, hizkuntza-aukeren berdintasun faltari. Euroganberak hizkuntza horiek babesteko eta haien ezagutza sustatzeko beharra aldarrikatu du.

Euskara, gainera, Euroeskualdeko ondarea eta mugaz gaindiko lankidetzarako baliabide nagusietako bat da. Euroeskualdeko lurraldearen zati batean duen hizkuntza ofizialaren estatusari dagozkion balio praktiko eta operatiboak lotzen ditu euskarak. Hortaz, ia ezinbesteko hizkuntza da Euroeskualdeko lan-merkatuan, eta, bereziki,

Euroeskualdeko sare sozioekonomikoaren funtsezko sektore batzuetan, hala nola ostalaritzan, merkataritzan, zerbitzu-enpresetan, garraioan, aisian, kulturen eta abar. Azpimarratu beharra dago, halaber, euskarak mugaz gaindiko lan-mugikortasunari eta elkartruke profesional, akademiko eta kulturalari egiten dion ekarpena. Ondorioz, adieraz daiteke euskara gaur egun oso hizkuntza garrantzitsua dela Euroeskualdeko zati handi bateko jarduera ekonomikoaren eta kulturaren esparru zenbaitetan.

Hain zuzen ere errealitate horretan oinarrituta, oso praktika eredugarria sortu da mugaz gaindiko lankidetzan. Izan ere, Ipar Euskal Herrian euskara sustatzeaz arduratzen den Estatuko erakundeak (Euskararen Erakunde Publikoa / Office Public de la Langue Basque izenekoak) eta Eusko Jaurlaritzak oso emaitza onekin dihardute lankidetzan Ipar Euskal Herrian euskara sustatzeko, segidako lankidetzak-hitzarmenen bidez. Hitzarmen horietako hirugarrena, 2017-2022 aldirako sinatua, Ipar Euskal Herriko euskararen eta euskarazko eskaintza antolatzearen ingurukoa da. Elkarrekiko erakunde-errespetuaren oinarritzko printzipioa abiapuntutzat hartuta, bi erakunde horiek tinko dihardute lankidetzan Ipar Euskal Herrian euskara bultzatzeko, eta elkarrekin laguntzen dute horretarako eraginkorrenak diren eragileak eta programak finantzatzen.

Hala eta guztiz ere, Euroeskualdeko hizkuntza propio horri bide luzea geratzen zaio oraindik ere erabateko normalizazioa lortzeko, nahiz eta Euroeskualdeko hizkuntza-aniztasun aberatsari ekarpen handia egiten dion, mugaren bi aldeetako milaka hiztunen bidez. Hori dela-eta, eta Euroeskualdeko lau hizkuntzen eta hiztunen arteko harreman orekatu eta emankorrean aurrera egiteko, bereziki garrantzitsua da euskararen jakintza eta erabilera hizkuntza hori erabiltzen den Euroeskualdeko eremuetan areagotzeko programak sustatzen jarraitzea eta elebidunen eta euskara erabiltzeko aukeren gehikuntza bultzatzea.

Euroeskualdeko estrategiak honako ardatz hauek izango ditu:

- Ikasle eta helduengan euskararen irakaskuntza sustatzea.

- Informazio eta Komunikazio Teknologia Berrien erabilera bultzatzea (prestakuntza-programak, online itzultzaileak eta abar) bereziki eremu urriko hizkuntzetan, eta gazteei zuzendutako ekimenetan oinarritzea.

- Komunikabideak eta haietan diharduten profesionalak Euroeskualdearen eremua hedatzeko proiektuan sartzeari.

– Euskaraz eta okzitanieraz egindako kultura- eta arte-proiektuak, eta hizkuntza horietan eginiko aisiaren inguruko proiektuak bultzatzea.

Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteko aukera sustatzea ikasleen artean, bereziki bigarren hezkuntzan eta Lanbide Heziketan

Hezkuntza- eta prestakuntza-alorra funtsezkoa da eleaniztasun-estrategia orotan. Euroeskualdeko hizkuntzen jakintza eta erabilera bultzatzea proposatu da, bereziki azpimarratuz bigarren hezkuntza eta Lanbide Heziketa (horietan Akitania Berria eskualdeak eskumen ugari ditu). Horretarako, prestakuntzaren alorrean kokaturiko edo hari loturiko elementu hauetatik abiatuko da:

– Irakasleak hizkuntza-gaitasunetan eta hizkuntzaren didaktikan prestatzen inbertitzea: hizkuntza-teknikarien sare egoki bat sortzea.

– Maila lortzeko irakaskuntza-sistemetan ziurtagiriak hedatu eta integratzea eta, era horretan, mugarrin identifikazioa eta helburuen ezarpena erraztea. Gaitasunak ebaluatzeko erreferente komun bat ezartzea.

– Irakasleen mugikortasuna eta langileak trukatzeko programak bultzatzea.

– Hizkuntza-politikako eragileen laguntza eskatzea, eleaniztasunean aurrera egiteko.

– Euroeskualdeko gazteen arteko kultura- eta prestakuntza-trukeak bultzatu eta sendotzea, eta kirolaren alorrean egiten direnekin osatzea.

– Egungo ikaskuntza-prozedurak eta -moduluak sarean jarri eta bateratzea. Informazio eta Komunikazio Teknologia Berriak (IKTB) hobeto baliatzea da, hizkuntzen ikaskuntza sustatzeko. Gogoeta estrategikoan parte hartu duten eragileek diotenez, baliabide digitalak gutxiegi erabiltzen dira, eta IKTBen eta komunikabideen erabilera neurri handiagoan sustatu behar da hizkuntzak hedatzeko mekanismo gisa. Ikasteko online moduluak badaude, eta horiek erabil daitezke; bereziki interesgarriak dira eremu urriko hizkuntzen kasuan.

– Euroeskualdeko lurraldeetan hizkuntzaz arduratzen diren erakundeen arteko koordinazioa sustatzea.

– Euroeskualdeko hizkuntzak ikastea erraztuko duen beka-programan sakontzea (adibidez: Eskola Futura proiektua, zeinak dirulaguntzak ematen baitizkie irakasle-ikasketetako ikasleei).

– Jardunbide egokiak partekatzea eremu urriko hizkuntzen arloan.

Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteko aukera sustatzea hainbat lanbide-sektore espezifikotan,

hala nola merkataritzan, ostalaritzan, turismoan eta pertsonen arretan

Hezkuntzaren eremuan esku hartzeaz gain (ikasleak eta ikastetxeak/irakasleak), bidezko hartzen da sektore-estrategiak garatzea zerbitzuen sektoreko profesionalen artean Euroeskualdeko hizkuntzen jakintza eta erabilera hobetzeko, profesional horiek harreman handiagoak baitituzte beste eskualdeko pertsonekin. Azken batean, hizkuntza propioen erabilera sustatu behar da Euroeskualdeko benetako herritartasuna finkatzeko prozesuan aurrera egiteko garaian eragile pribilegiatuak diren sektoreetan (hots, merkataritzan, ostalaritzan eta turismoan). Horri esker, komunikazioa eta elkartrukeak bultzatu ahal izango dira, eta herritarrei kontsumitzaile gisa eskaini beharreko arreta hobetu ahal izango da. Jada Plan Estrategikoaren lehenengo bertsioan identifikaturiko “xede” diren sektore horiei goraka doan beste sektore bat gehitzen zaie, Plana eguneratzean sorturiko eleaniztasunari buruzko focus group-ean eginiko proposamenaren bidez. Sektore horrek gertuko enplegua sortzen du, pertsonaren zaintzaren arlokoa da.

Helburua (gaur egun kuantifikatu ezin dena, abiapuntuko datua falta baita) honako hau da: Plan Estrategiko honen indarraldian, eta hautatutako sektoreetako batean lan egiten duten pertsonen dagokienez, harrerako eta zerbitzuak emateko hizkuntza gisa bisitarien hizkuntza (Euskadin eta Nafarroan Akitania Berriko bisitariena, eta alderantziz) erabiltzeko gaitasuna duten pertsonen ehunekoa era esanguratsuan hobetzea. Horretarako, honako hauek proposatzen dira:

– Modulu espezifikoak garatzea, hautatutako zerbitzuen hornitzaileek bezeroekin oinarrizko komunikazio egokia izateko beharrezkoa duten gutxieneko lexikoa menderatzeko. Hizkuntzaren teknologiarri etekina ateratzea.

– Elkartruke egituratuak antolatzea eragile bitartekarien artean, hau da, turismo bulegoetako langileen, museoetako langileen eta abarren artean.

– Aztartzea ia egokia ote den urteko aitorpen-sistemak (zigilua) ezartzea, Euroeskualdeko hizkuntzetan jendeari zerbitzuak eskaintzeari dagokionez modu egokian aurrera egiten ari diren enpresen artean.

– Sustapen-kanpainak egitea komunikabideen edo beste euskarri batzuen bitartez, eta inplikaturako sektoreei zuzendutako zuzeneko mezuen bidez, Euroeskualdeko hizkuntzei ospea emateko eta hizkuntza horietan jendeari arreta emateak duen garrantzia agerian uzteko.

– Jardunbide egokiak partekatzea: eleaniztasunari buruzko lantalde espezifikoan zenbait jardunbide egoki aipatu dira, beste esparru edo hizkuntza batzuetara zabaldu edo eraman daitezkeenak (adibidez, Eusko Jaurlaritzak ematen dituen dirulaguntzak hizkuntza-paisaia hobetzeko eta Euskadiko saltoki handietako langileak euskaran trebatzeko).

– Langile teknikoen eta Administrazioetako langileen stage-ak eta trukeak antolatzea, administrazio-arloko kultura-artekotasunean aurrera egiteko.

Proposa daiteke ekintza bat, denboran iraunkorra baina hainbat fase edo esperientzia pilotu zehatzetan egituratua. Horien oinarri izango dira ondo zehaturiko xede-biztanleak (adibidez, tamaina, eremu geografiko... jakin bateko ostalari-

tzarekin edo merkataritzarekin has daiteke, esperientzia pilotu gisa). Epe luzeagora, lankidetzatza-aukera gehien eskain ditzaketen beste sektore batzuetan garapen terminologikoa ezar daiteke xede gisa.

Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualea LLETa izan daiteke ekintza hori egiteko beharrezkoak diren izapideak bideratuko dituen eragilea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 24an

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria: Ana Olló Hualde